

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

5147

98/2025 EBAZPENA, azaroaren 21ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren eta HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen artean hitzartutako kudeaketa-gomendioari buruzko Erabakia, 2025-2026 ikasturtean Ertzaintzako langileentzat lanorduz kanpoko euskalduntze-ikastaroak antolatzeko.

Gobernu Kontseiluak, 2025eko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren eta HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen artean hitzartutako kudeaketa-gomendioari buruzko Erabakia onartu zuen, 2025-2026 ikasturtean Ertzaintzako langileentzat lanorduz kanpoko euskalduntze-ikastaroak antolatzeko, eta, behar bezalako publikotasuna emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren eta HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen artean hitzartutako kudeaketa-gomendioari buruzko Erabakiaren testua; 2025-2026 ikasturtean Ertzaintzako langileentzat lanorduz kanpoko euskalduntze-ikastaroak antolatzeko hitzarmena da. Erabakia ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 21a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 21EKO 98/2025
EBAZPENARENA

ERABAKIA, EUSKO JAURLARITZAKO SEGURTASUN SAILAREN ETA HABE
HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEAREN
ARTEAN HITZARTUTAKO KUDEAKETA-GOMENDIOARI BURUZKOA, 2025-2026
IKASTURTEAN ERTZAINITZAKO LANGILEENTZAT LANORDUZ KANPOKO
EUSKALDUNTZE-IKASTAROAK ANTOLATZEKO

Alde batetik, Bingen Zupiria Gorostidi, Segurtasuneko sailburua, lehendakariaren otsailaren 4ko 31/2025 Dekretuaren bidez izendatua.

Bestetik, Ibone Bengoetxea Otaolea, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, lehendakariaren ekainaren 24ko 20/2024 Dekretuaren bidez izendatua, HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeko presidente gisa, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu eta euskaltegiak arautzeko azaroaren 25eko 29/1983 Legean aurreikusitakoaren arabera.

ADIERAZTEN DUTE:

I.– Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila da, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren bitartez, Ertzaintzan hizkuntza-normalizazioaren arloan eskumena duen organoa –hala xedatzen du 318/2024 Dekretuak (318/2024 Dekretua, urriaren 29koa, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena), 12. artikuluan–; eta, helburu hori lortzeko, honako hau aurreikusten du: euskarazko hizkuntza-prestakuntza ematea, euskarako azterketa ofizialak egitea eta lanorduz kanpoko ikastaroetan parte hartzea HABEren erregistroan inskribatuta dauden euskaltegi publikoetan, pribatu homologatuetan eta autoikaskuntza-zentroetan.

II.– 29/1983 Legearen arabera (29/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortzekoa), HABE administrazio-izaera duen organismo autonomo bat da, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikia, eta berezko nortasun juridikoa du, eta bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasun osoa.

III.– HABEren eginkizunen artean, besteak beste, helduei euskara irakastea dago, bai eta EAEn euskalduntzea nahiz alfabetatzea bultzatu eta sustatzea ere, hizkuntza-politikaren arloan eskumena duen Jaurlaritzako organo eskudunak emandako jarraibideen arabera.

IV.– HABE institutuak badauzka Segurtasun Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzaren beharrei erantzuteko behar diren antolakuntza eta baliabideak.

V.– Horiek horrela, parte hartzen duten alderdiek –Segurtasun Sailak eta HABEk–, ikusirik elkarrekin lankidetzan aritzeko interesa dutela eta lankidetzat hori onuragarria izan daitekeela interes publikorako, erabaki dute kudeaketa-gomendio hau adostea, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Akordio honen xedea da HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen gomendio uztea Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren eskumenekoak diren jardura materialak, teknikoak eta zerbitzukoak kudeatzeko zeregina, lanorduz kanpoko aurrez aurreko eta autoikaskuntza-modalitateko euskalduntze-ikastaroak antolatzekoa.

Bigarrena.— Ertzaintzako langileentzako lanorduz kanpoko euskalduntze-ikastaroek bat etorri behar dute HABEk diruz lagundutakoekin eta Segurtasun Sailak bere deialdietan zehaztutako moduluekin.

Hirugarrena.— Segurtasun Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzak egingo ditu Ertzaintzako langileentzako lanorduz kanpoko euskalduntze-ikastaroetarako deialdiak, eta bera arduratuko da eskaerak jasotzeaz eta izapidetzeaz.

Laugarrena.— HABEk egin beharrekoak:

a) Giza baliabideak eta baliabide materialak ematea, ikastaroak euskaltegien eta autoikas-kuntza-zentroen bidez emateko.

b) Matrikulen kudeaketari dagokionez, euskaltegiek eta autoikaskuntza-zentroek bidalitako matrikulak jaso, aztertu, zuzendu eta, hala badagokio, onartzea, eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidaltzea, dagokion fakturazioarekin batera.

c) Giza Baliabideen Zuzendaritzari informazioa bidaltzea Ertzaintzako langileek kudeaketa-gomendio honetako prestakuntza-ekintzetan izandako aprobetxamenduaren eta bertaratzearen ebaluazioari buruz.

Bosgarrena.— Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak finantzatzeko kudeaketa-gomendio honetako jarduerak, HABEk ematen dituen zerbitzu eta jardueren prezio publikoen arabera. Jarduera bakoitzaren hasieran sailburuaren zer agindu dagoen indarrean, hantxe zehaztutakoak izango dira prezio publikoak.

Seigarrena.— Ordainketa.

Hiru ordainketa egingo dira, HABEk gastua faktura bidez justifikatu ondoren eta Segurtasun Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzak faktura hori onartu ostean:

– Lehenengo ordainketa urteko laugarren hiruhilekoan egingo da, eta urrian hasten diren prestakuntza-jarduerak ordaintzeko izango da.

– Bigarren ordainketa urteko bigarren hiruhilekoan egingo da, eta urtariletik ekainera bitartean hasten diren prestakuntza-jarduerak ordaintzeko izango da.

– Hirugarren ordainketa, azkena, urteko hirugarren hiruhilekoan egingo da, eta udako prestakuntza-jarduerak ordaintzeko izango da.

Zazpigarrena.— Gomendio hau finantzatzeko kreditua 1.060.000 eurokoa da; horietatik 610.000 euro 2025eko ekitaldirako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 450.000 euro 2026ko ekitaldirako konpromiso-kredituari.

Zortzigarrena.— Kudeaketa-gomendio honek Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 29. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan aurreikusten den izaera du; haren bidez ez dira lagatzen ez eskumenaren titulartasuna, ez eta eskumen hori egikaritzeko elementu substantiboak ere, eta gomendioa egin duen organoaren erantzukizuna da gomendioaren xede den jarduera material zehatzaren euskarri diren edo hura biltzen duten egintza edo ebazpen juridiko guztiak ematea.

Edonola ere, gomendioa jaso duen entitate edo organoa izango da kudeaketa-gomendioa betetzean eskuratzen dituen datu pertsonalak tratatzeko eragilea, eta datu pertsonalak babesteko araudian xedatutakoa aplikatuko zaio.

Bederatzigarrena.— Jarraipen-batzorde bat sortuko da, Giza Baliabideen Zuzendaritzako eta HABEko kideek osatua, akordio hau zuzen kudeatu eta interpretatzeko, eta antolaketa-alderdien inguruan sortzen diren arazoak ebazteko.

Jarraipen-batzorde horrek osaera hau izango du:

– Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritza ordezkatzuz:

- a) Ebaluazio, Hornidura eta Lantokien Arloaren arduraduna.
- b) Prestakuntzaren eta Hizkuntza Normalizazioaren Atalaren arduraduna.
- c) Prestakuntzaren eta Hizkuntza Normalizazioaren Ataleko teknikariak.

– HABE ordezkatzuz:

- a) HABEko Kudeaketa Zerbitzuaren arduraduna.
- b) HABEko Ikuskaritzaren arduraduna.
- c) Administrazio publikoetako ikasleen jarraipena egiteko HABEko teknikariak.

Hamargarrena.— Kudeaketa-gomendio hau bere indarraldia amaitzean azkenduko da, eta beste egoera hauetan, abian dauden jarduketak amaitzea ezertan eragotzi gabe:

- a) Alderdiek hala adosten dutenean.
- b) Gomendatutako jarduketak egitea ezinezko edo alferrikako bihurtzen duten egoerak gertatzen direnean.
- c) Akordio honetan jarritako baldintzak betetzean ez direnean, alderdietako edozeinek salaketa egin ondoren (behar bezala jakinarazi behar da). Kudeaketa-gomendioa azkentzeko borondatea jakinarazten denetik hiru hilabetera amaituko da haren indarraldia.

Hamaikagarrena.— Kudeaketa-gomendio honek 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era arte izango ditu ondoreak, salbu eta azkentzeko arrazoiren bat gertatzen bada.

Kudeaketa-gomendioaren indarraldia elkarren arteko adostasunez luzatuko da, baina gehienez lau ikasturterako. Luzapenak egiteko, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Azaldutakoarekin bat datozela frogatzeko, bi alderdiek kudeaketa-gomendioa izenpetzen dute.

Egoitza elektronikoa, 2025eko azaroaren 11.

HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeko presidentea,
IBONE BENGOTXEA OTAOLEA.

Segurtasuneko sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.